



Global Safe Site Ziurtagiria

Bahía Bizkaia Gas (BBG) konpainiak, Bureau Veritasek emandako GLOBAL SAFE SITE ziurtagiria lortu du. Adierazitako horrek ziurtatzen du, enpresak pandemian zerbitzua bermatzeko zehaztu duen protokoloak osasun eskakizunak betetzen dituela eta agirian ere adierazten da, enpresak COVID19ari aurre egiteko jardunbide egokiak betetzen dituela.

Ziurtapena oinarritu da **BBG** lantokian lan egiten duten langileen eta enpresa laguntzaile eta kontratisten segurtasuna zaintzeko egiten dituen jardueretan, eta berretsi du Bahía de Bizkaia Gasek beharrezko prozedurak dauzkala prebentzio, osasun, higiene, instalazio eta desinfekzio-rako eta coronarivirusaren hedapena geldiarazteko ■



Zerbitzuan lehen atoiointzi duala (gasa / gasolioa)

Ibaizabal Atoiointziak konpainiak eta **Murueta Ontziolak** uztailen egindako proben ostean, Bilboko portuan Gasarekin (LNG) eta Gasoliorekin higiaraziko atoiointzi dual berria martxan jarri dute. Atoiointziari, "Ibaizabal hamabost" izena jarri diote.



Atoiointzi berritzaile honek 28 metroko luzera, 12 metroko zabalera, 397 GTko erregistro gordina eta 55 toneko tiro edukiera dauka, eta 12 korapiloko abiadura hartzen du.

Merkatura atera da Europako finantziazioa duen "Core LNGas hive" proiektuari esker, eta proiektu horretan, Espainiaren eta Portugalen artean 40 erakunde bano gehiagok parte hartzen dute. **Euskadiri dagokionez, Ibaizabal Atoiointziak eta Murueta Ontziolak** gain, **Energiaren Euskal Erakundeak/Bahía Bizkaia Gas erakundeak eta Bilboko Portuko Agintaritzak** ere parte hartzen dute.

Enagasek koordinatzen duen "Core LNGas hive" proiektuak logistika-kate integratua, segurua eta eraginkorra garatzen du, gas natural likuatua, GNL (small scale eta bunkering) Iberiar Pernintsulako garraio sektorean eta bereiziki itsasokoan, erregai legez hornitzeko ■

FuelsEuropen iritziz, erregai sintetikoaren planta, ekimen garrantzitsuenetako bat sektorearen deskarbonizazioa lortzeko

FuelsEuropentzat, finketa industriaren Europako elkar-tea, Petronorrek etorkizunean egingo duen erregai sintetikoaren planta -60 milioi euroko inbertsioa beharko duena-, I+Dko ekimen garrantzitsuenetako bat da sektorea deskarbonizatzeko.

Joan den ekainaren 15ean, **Repsol**ek eta **Petronorrek** Bilboko portuan kokatuko den proiektua aurkeztu zuten. Proiektuaren helburua, munduko erregai sintetikoaren planta handienetako bat garatzea da. Bere lehengai bakarrak, CO2 eta energia berriztagarriko uraren elektrolisiaren bidez sortutako hidrogeno berdea izango dira.

Instalazioa lau urteko epean erabat operatibo egongo da eta Europar erreferentzia izango da bere puntako teknologiagatik eta Petronor birfindegian hartutako CO2 erabiltzeagatik ■

